



Fitxa teknikoa / Ficha técnica

Izenburua / Título: **Samina**
Egilea / Autor: **Marguerite Duras**
Itzultzailea / Traductor: **Xabier Artola**
Saila / Colección: Literatura Unibertsala, 164
ISBN / EAN: 978-84-9746-899-2
Salneurria / Precio: 12,50 € (BEZ barne – IVA incluído)
Orri kopurua / Nº páginas: 208
Formatua / Formato: 13 x 19,5 cm

Egilea / El autor

Marguerite Duras (1914-1996) Indotxinan jaio zen, baina 18 urtetik aurrera Frantzian bizi izan zen. Paris okupatuan Erresistentzian militatu zuen; Frantziako Alderdi Komunistako kide ere izan zen. Bizitza idazteari eman zion, zinemagintzan ere jardun zuen arren. *Maitalea* eleberriarekin lortu zuen arrakasta handiena, 1984an (3 milioitik gora ale, 40 hizkuntza baino gehiagotara itzulia; prestigio handiko Goncourt saria eman zioten horregatik.

Itzultzaileak / Traductores

Xabier Artola Zubillaga (1957, Donostia). Euskararen irakaskuntzan zenbait urtez aritua, Informatikan doktorea da eta EHUko Informatika Fakultatean dihardu irakasle. Ixa taldeko partaidea da. *Argi-itzalen neurria* ipuin bilduma argitaratu zuen 2011n.



Lana / La obra

Paris, alemanek okupatuta dago. Robert eta Marguerite Erresistentzian ibiliak dira. Robert, 1944an, segada batean erori eta Alemaniara deportatu zuten, kontzentrazio esparru batera. Liburuari izenburua ematen dion istorio nagusian Roberten itxarote larrigarria kontatzen zaigu, haren emaztearen –Margueriteren beraren– ahotsaz. Alemaniako esparruak askatzen ari direla, deportatuak Parisera itzultzen hasiak dira, tantaka bezala, kondizio penagarrietan gehienak. Eta hor dago Roberten emaztea haren zain, bere bakardadean; hura oraindik bizi den ala fusilatu duten ez dakiela, ezer ez jakiteak eta itxaron beharrak sortzen dion egonezin saminean.

Testu hauek okupazioaren azken egunetan idazten hasi baziren ere, 1985era arte ez ziren argitara eman. Batzuk fikziozkoak, besteak benetazkoak, kezka moral baten lekukotasuna uzten digute borroeroen eta biktimen arteko harreman konplexuetan.

